

# LANGABEZIA: LANGABETUEN PSIKOSOZIOLOGIA

Jokin Apalategi

Langabeziaren fenomenoak gogoeta desberdinetara bultzatzen gaitu. Batetik, langabeziaren aterabidetzat produkzioaren hazkuntza proposatzen delarik, hazkuntza mugagabe baten ahala suposatzen ari gara. Baina, hori uste ustela da. Produkzioa gizarte-lege batzuen preso baita. Gainera, produkzio-hazkuntzak, beste gabe, ez dakar lan-hazkunderik. Bizi ditugun garaietan, jendeak bestela uste badu ere, produkzioa emeki bada ere beti gora joan denean, langabezia erritmo bizi-bizian behera etorri baita.

Bestalde, estatu liberaletako konstituzioetan gizaki-emaztekiek lanerako duten eskubidea aitortzen denean, ez da bakar bat ere ausartzen lanaren beharrezkotasuna konstituzionalizatzen. Horrek estatu horientzat hiritar orori lana emateko konpromisoa erakarriko bailuke.

Langabetua deritzogun izaki kolektiboa bada, aurre-baldintza hauen menpekoa dugu. Hori horrela izanik, galdeurratsa berri bat ematen dugu, hots, langabetuak nola bizi du bere egoera? Psikosoziologiaren laguntzaz, eredu kualitatibo batzuk aipatuko ditugu, horretarako lekuan lekuko lana baliatuz.

Gaur egun mass-media desberdinek, batezbeste, gehien darabilten gaia inolako ezpairik gabe lanaren ingurukoa da. Hemeretzigarren mendeaz gero lanaren sakralizatzea, lanaren birtuteak goraipatzea, lanaren esplotazioa salatzea, lanaren kriterioan oinarritutako gizarte zuzenago bat proposatzea, etabar, ardurazko izan dira. Duela hogei urtez gero, ordea, langabezia berriaren mamua plazaratu delarik, eta dakartzan ondorioak egunez egun kontatzen zaizkigunean, lanaren irudi bat nabarmendu da: Gizarte industrialean (postindustrialean), lehen bezala orain, lanaren ardatzean josten den diskurtsoan, lana gaitzestu baino gehiago mirestu egiten dugula. Baina gure gizarteek duten lanaren gurtza ez da gizaki-emaztekiekin kultura guztietan horrelakoa izan. Urrunago joan beharrik gabe, gogora dezagun, mendebaldeko kulturaren hain erroturik dagoen Biblian Jainkoak Adan bekatiariari egin madarikazio larrienak zer zioen: *Zure emaztearen mintzoa duzulakotz aditu, eta ez jateko manatua nauzu zuhaitzetik jan, madarikatua bedi lurra zure gatik! Hartarik haziko zara nekean zure biziko egun guztietan. Elorri eta kardo sortuko dauzu, eta baserriko belarra janen duzu. Zure begitarteko izerditan janen duzu ogia lurrerat itzuli arte, hantik hartua zira eta; errauts zira ezen eta errautserat itzuliko*<sup>1</sup>. Eta Bibliako kultura ez da lanaren ikuspegi morroi hau duen bakararra. Grekoen kultura arrazoituan ere beste hainbat gertatzen da. Bi eratako gizaki-emaztekiak daude: libroak eta esklaboak. Eta lana bigarren hauen eginkizuna da bereziki. *Después de dejar claro de qué partes está*

*constituida la ciudad hay que hablar en primer término de la administración de la casa... Las partes de la administración son las correspondientes a las partes que constituyen la casa. Y la casa completa, se compone de libres y de esclavos... La vida es acción, no producción. Por ello el esclavo es un subordinado para las cosas prácticas. Pues la parte no es sólo parte de otra cosa, sino que depende enteramente a otra cosa. De igual manera también el objeto poseído. Por eso el señor es señor del esclavo, pero no depende de aquél. En cambio, el esclavo no sólo es esclavo de su señor, sino que enteramente depende de él. Cuál es la naturaleza y cuál la función del esclavo resulta claro de lo expuesto. El que siendo hombre no se pertenece por naturaleza a sí mismo, sino que es un hombre de otro, ése es, por naturaleza, esclavo. Y es hombre de otro el que, siendo hombre, es una posesión, y una posesión como instrumento activo y distinto. Tras esto hay que examinar si hay alguien de tal índole por naturaleza o si no; si es mejor y justo para alguien ser esclavo o no, o bien cualquier esclavitud es contraria a la naturaleza. No es difícil estudiarlo con la razón y sacar conclusiones de la experiencia. Mandar y ser mandado no sólo son hechos, sino también convenientes, y pronto, desde su nacimiento, algunos están dirigidos a ser mandados y otros a mandar...<sup>2</sup>. Halere, autore berak errekonozitzen du naturaren legea ez den zerbaitetik ere jalki daitekela esklabotasuna, hots, gerrak norbaiti eman diezaiokeen nagusitasunetik: *Pero también los que afirman la tesis contraria tienen razón**

*en cierto modo no es difícil de apreciar. Con dos sentidos se dice lo de esclavitud y esclavo. Pues hay también esclavos y esclavitud por ley. Y esa ley es un cierto acuerdo, según el cual las conquistas de guerra son posesión de los vencedores. Ahora bien: muchos de los entendidos en leyes recusan tal derecho, como denunciarían por ilegalidad a un orador, en la idea de que es terrible que el sometido por la fuerza haya de ser esclavo y súbdito del que puede ejercer la violencia y es más fuerte en poder*<sup>3</sup>. Egia da eztabaida genezakeela zenbateraino libreak ere lanik ez zuten egiten. Bereziki libro horiek merkatarizirenean. Halere libroaren aspirazio gorenan lanik egin gabe bizitzeko modua lortzea zen. Gainera, gauza desberdinak dira aberastasunen grinaz lan egitea ala bizitzeko lana egin beste erremediorik ezean lan egitea. Are laneko lanabes bat gehiago izatetik ezin ihesik egin ahal izatea kondizio zutela deskubritzea.

---

### **Langabezia: Sorrerak**

---

Lurraren jabetza pribatuaz eraikitako gizarte historikoa izanen da lehena langabeziaren kontzientzia hartzen. Ordurarteko gizarteek lurra eta itsasoa ukanik lan-erreferentziaz eta horiek idekiak eta mugagabeak izatean ororentzat ez zuten lanerako grina zuenarentzat lan beharra asetzeko oztoporik egon zitekeenik susmatzen ere. Besterik da lan-grina erabiliak zer fruitu ekar zezakeen iragartzea, edo eta zenbait langintzak ezer gutxirako balio zuelako kontzientzia izatea. Gaur egungo gizartearen

atarian gogora dezagun nola eraturik zegoen lan-bizitza: *Los grandes dominios de la alta Edad Media se dividen en tres partes: las tierras comunales, que siguen siendo propiedad colectiva, es decir los bosques, prados, pantanos, etcétera; las tierras que el siervo trabaja para atender a su subsistencia y a la de su familia; y finalmente las tierras que aquél trabaja para mantener al señor feudal. En general, la semana de seis días, y no de siete. Se divide en dos partes iguales: tres días por semana el siervo trabaja la tierra cuyos productos le pertenecerán, y tres días trabaja, sin recibir ninguna remuneración, la tierra del señor feudal; proporciona trabajo gratuito para la clase dominante*<sup>4</sup>.

Gizarte industrialean langabeziaren kontzientziara ailegatzerako bada, funtsezko urratsak emanen dira. Errenazimentuan lehenik eta behin, jendea itsatsirik dagoen lurretik botatzen da. Ardiekin lurra okupatzea morroiz okupatzea baino aberastasun-iturri hobeago dela uste izanen duelarik nobleziak eta kleroak jendea bidez bide eskeko jarriko baitu. Jokabide horren hedadura zuen hain gartsuki salatu Tomas Morok bere *Utopian: Artilerik meheena, eta beraz garestiena, egiten den erresumako bazter guztietan, aitonon semeek, nagusi handiek eta berdin abade sainduek, beren ontasunetarik, antzinekoek bezala, urteka altxatzen zituzten emaitzak eta mozkinak ez aski ukanez, eta herriaren bizkar, non ez den herriaren kaltetan, alfer eta lasai bizitzen ezin egonez, deus ez diote utzi nahi laborantzari: beren alegientzat*

hezten dituzte elgeak oro, etxeak jaurtikitzen, hiriak urratzen eta elizak zutik uzten, ardien aterpetako. Eta zuen eskualdeetan ez balitz bezala, ihizi-oihan eta ehizi-erresaldu, aski eremu galdurik, jende on horiek ari dituzte bizitoki guziak, eta lur landu poxi guziak, basamortu bihurtzen. Horra beraz nola, herriaren izurri beltza den jangile ezinase batek, lurrak oro irentsiz zenbait mila iteguneko ermua hesola bakar batez ingura dezan, etxezainak kanporatzen diren jukutriaz enganatuz edo indarrez lehertuz, beren funtsez gabetzen, non ez diren, laidoez lotsaturik, denen saltzera behartzen. Nola edo hala badoaz, errumes noharroin horiek, gizon eta emakume, senar, emazte, umezurtz, alargun, haur tipiekilako buraso eta, lurrak hatz-behatz asko eskatzen baitu, diruz baino kidez aberatsago, etxeakoak.

Badoaz-diot nik-supazter eta etxebazter ezagunak utzirik, jakin gabe non aurki aterpe. Eroslea igurika ahal baledi ere, merke sal litekeen hatua erdi urririk uzten da, iraitzi behar delarik. Eta gero laster, han-hemenka ibili ondoan, diru apur hura xahutu delarik, zer egin besterik, ohointzari lotu baizik, eta zuzen den bezala alabaina, urkabera igan. Non ez diren, eskuin edo ezker, eske abiatzen. Baina orduan ere preso sartzen dituzte, arlotekeriagatik; deus egin gabe badabiltzalako aitzakiarekin; nehork lanik eman ez diotelarik, eta berek, hain gogotik, lan edozein har lezaketelarik. Haiek lan egiten ohituak zeuden lurgintzan ordea deus ez denaz geroz ereiten, ez da gehiago deus lur-lanik: ereiteko ainitz beso behar duten

alorretan, abereak alatzeko artzain bakar bat aski da, edo itzain bat. Hortakotz ere lurrak eman ohi duen anoa, asko garestitu da, ainitz tokitan. Harrigarri ez bada! Artilea hainbeste goiti igan da, non horrekin bere oihalak ehaiten zituen jende zeheak ez baitezake eros. Eta beraz, gero eta langile gehiago langabezian erortzen da<sup>5</sup>.

Hainbat eta hainbat gogoeta sakon eta seriozen ondotik lurraren propietate pribatuaren abolizioa eskatzera helduko da: Horiek oro gogoan hartzen ditudanean, zuzenkiago mintzo naiz Platonez eta ez naiz hala harritzen, aberastasun guziak guzien artean berdin banatu nahi ez zituzten herritarrentzat legerik egitea ez baitzuen onartzen jakintsu hanadi horrek. Salbabide bat baizik ez dela herriarentzat ontsa ikusia zuen alabaina gure gizon prestuak: aberastasunen berdinketa behar da egin eta ez dakit berdinketa hori sekula ardiesten ahalko denetz bakoitzaren ontasunak ontasun “pribatu” dauden tokian. Zeren norbera edozein tituluz balia daitekeno ahal guzia bereganatzeko, herritar bakar batzuek eskuratzen dituzte mozkin gehienak, –hauek nahi bezain nasaiak izanik ere– eta besteak uzten dituzte gabezia. Alta maiz azken hauek, besteak baino gehiago dira zorte onaren hartzeduru: haiek ezdeusak dira, ohoinak eta harrapariak; hauek aldiz, apalak, xeheak eta, beren egun guzietako lanari esker, berentzat baino gehiago herriarentzat onuragarriak. Zin-zinez uste dut beraz, jabego pribatua ez baldin bada osoki suntsitzen, ez dela izaiten ahal ontasunen banaketa egoki eta zuzenik;

*eta munduko gorabeherakez daitezkeela bide onetik eraman. Jabego pribatuak iraunen dueno, gizarteko zati handienak eta onenak beharko du beti jasan gabeziaren eta miseriaren zama hertsagarri itzurezina; eta apur bat arin baledi ere, daukat ez dela neholaz osoki altxatzen ahalko<sup>6</sup>.*

Jende erratu horiek sistema feudalaren bazterrean ekonomia berezi bat artisautzaz eta merkataritzaz osotua bilakatuko dute. 1650 urte inguruan kapitalismo historikoa kontsolidaturik aurki dezakegu Europan. Halere, 1650ean gizarte-ekonomiaren zuzendaritza duten familiak eta 1450ean zutenak eskualde berean konbaratzen badira berdintsuak direla aurkituko dugu<sup>7</sup>. Ekonomi molde berri batek nagusigoa lortu orduko aitzineko ekonomi moldean lidergoa zutenen egokitzea dator. Hainbat borrokatu izan duten ekonomia moldearen azalera, produktiaz gero parte handi batean eurenagatzen dute.

Manufakturaren eta industriaren kapitalismoak proletalgora sortuko duelarik hiri-bazterretan masa-kontzentrazioak eragingo ditu. Masa hauek ordurarteko langileak ez bezala ugazabarekin egindako hitzarmena beste bizibiderik ez dute. Beren alokairuak hirira merkatariek karreatzen dituzten ontasunetatik parte hartzeko ahalak ematen dizkiete. Baina, alokairu hori gabe geldituz gero asfaltoko lorearen etorkizuna dute. Proletalgotzat etenak baititu lurlangintzako gizaki-emaztekiak, bizibide bat birsortzeko ahalmenetan iturri dituen lur eta itsasoarekiko harrema-

nak eta ezagutzak oro. Honela bada, langabeziaren subjektu modernoaren kondizioa seinaturik dugu. Hemezortzigarren mendean berehala konfirmatuko ziren subjektu berriaren ahuleziak. Produkzio industrialak, bere kondizioengatik, materia primen aukera, kontsumitzaileen ahala, konkurrentzien lehia, etabarrengatik itoaldiak eta larrialdiak pairatuko dituelarik langabetuak sortuko baititu.

---

### **Langabezia: Gizaki-Emaztekien gatazka**

---

Produkzioa gehi dezagun eta langabezia tipituko dugu, esaten zaigu teknokraten eta politikoen katedretatik. Arrazoizkoa al da mezu hau? Begi bistakoa da produkzioa absoluturaino eraikitzea balego jendearen okupazioa bikoizteraino pentsa litekeela. Baina, produkzioa merkatuaren arabera bakarrik gehi daiteke, eta merkatua berriz kontsumo potentzialak mugatzen du. Hitz batean esanda, beharrezko den hura baino gehiago den oro soberakin da. Produkzio-ahalak gizartearen beharrak eta luxuak agintzen duten hartan bakarrik dira errealak. Eta luxuaren mugek mugagabeak badirudite ere, luxuaren irudikapenak etengabe berritzaile pentsa ditzakegunez, aldiz luxuaren okupazio erreala garaian garaiko gizaki-emaztekien imaginarioaren soziologiara nahitaez mugaturik dago. Gizaki-emaztekien luxuzko alorrean okupatzeko dagoena beste ezer ezin okupa daiteke. Gehienera okupaturik dagoena desokupatuaz egindako zuloa birrokupa dezakegu. Eta lanaren ahalak luxuari dagokionean bere

okupazio errealak eta ez beste ezerk mugatzen ditu. Guzi honekin argi eta garbi dago teknokraten eta politikoen produkzio-langabeziari buruzko harremana zehazturik uzten dugula.

Are gehiago dena, esaldi bera, oraino beste plano batetik so eginaz miatzen badugu kontradikzio materialekin topatuko gara. Europako Barne-Produktu Gordina, 1991an % 1,1 igo zenean, (gainera inflazioa ere beheraka ari denean, 1991 urtean % 4,1koa izan zen) aldiz langabezia 1991 urte berean 6,2ra ailegatu zen. Hau idazten dugunean, 1992 eta 1993ko urterako arlo hauetan dauden aurrikuspenak berriz honela daude: Barne-Produktu Gordina 1992an % 1,4koa, eta 1993an % 2,4koa izanen omen da. Inflazioaren gorabehera 1992rako 3,5ra, eta 1993ra 3,2ra igaroko denean. Aldiz langabezia, 1992an % 7,1 eta 1993an % 7,5 gortuko omen da. Aski garbi dago, eta gutienez lotsagatik, ixildu behar lirateke teknokratak eta politikoak produkzioaren baitan langabeziaren gutipena ezarriaz mintzatzen direnean. Produkzioarena ez da gaur egungo langabeziaren krisia. Beste zergati batzuk daude. Zertzuk diren horiek? Gertakizun sozialak miatuaz gero, zio nagusiak izendaturik, labur bada ere, arazoitzen saiatuko gara.

### **Jakintzaren errola teknologia berrien bila**

Gure gizartearen historia hurbilera mugatuz, hasteko, seinala dezagun Errenazimentuan gertatutako ikuspegi antropologiko berriaren sorrerak Jakintza eta Teknologia berrietarako irekiko duen bidearen garrantzia.

Europar hamaseigarren mendean bilakaturiko erlijiozko gerrak, besteak beste, kapitalismoa kudeatzeko molde berri bat kontzertatzean gauzatuko dira. Calvinoren ukituak ukanen du eraginik gehiena. Bere doktrinan hiru hegi dago: Benetako Fedean egon nahi duenak Idatzi Sainduak zuzenki ezagutzeko agindua da, bata.

Bigarrena, bekatu originalaz gero gizaki-emaztekoa usteldurik dago, eta Jainkoaren laguntzak bakarrik Ipernutik libra dezake. Hirugarrena eta garrantzikoena ikuspegi antropologiko berriaren sorrerari doakionean, Predestinazioaren ideia, zeinen arabera gizaki-emaztekiok ez baikara gure obregatik salbatuko, Jainkoak aurrez hautatuak izateagatik baizik zeintzuei hautatu direnen seinale Sinismena eta Graziaren asegurantza ematen baitizkie.

Hain zuzen, sinistun guziak salbatuko ez ote ziren pentsatzeak Calvinoren kristauak beren salbazio kezka oinazeturik bizitzera zaramazkien. Baina, hori inkomodoa izanik Calvinoren elizako artzainek etika ziurtzaile bat egin zuten. Garrantzi handienekoa, Jakintza eta Teknologia berrien bila jartzeari eta Produktibismoaren printzipioa sustatzeari doakienean.

Laburbilduaz etika horren printzipioak hauek dira:

1) Lanaren beharra. Jainkoaren Erreinua eraikitzekean nagikeria, alferkeria, eta aisiakeria goreneko bekatuak lirateke. Sinistun orok Jainkoaren Erreinuaren tokatzen zaion eginbeharra bete behar du serioski eta

efikazki eskatzen zaizkion funtzioak beteaz “Jainkoaren aintza handienerako” (ad majorem Dei gloriam). Lana ez da inolaz ere bada hoben bati derrigorrez jarraitzen zaion kastigua edo gaitz erremedio gabe bat. Erdi Aroan sehigoarentzat lana uzten zuen kristau-gizartearen kondenan gaude. Lanaren bidez gizaki-emaztekiek Jainkoaren aintzaren agerpenean positiboki parte hartzen baitute. Gainera ez da aski lan egitea, utilitatezko xedea ukan behar du, hots, produktiboa izan behar du. Ondorioz ere, jarraitua izan behar da. Honela gaztarotik beretik haurrari lanaren eta bokazioaren zentzua itsatsi behar zaizkio.

2) Sinistunak, bestalde, bizitza latza egin behar du. Luxua, oparotasuna eta lukurreria alde batera utzi behar ditu. Irabaziak bada birprodukzioan inbertitu behar ditu. Sinistunaren egitekoa da ontasunak geroz eta fruitu ugariago bilakaraztea. Bizitzeko beharrezko dituenak kontu handienez hautatuz gastatu behar ditu.

3) Sinistunak eskolatzea atzeman behar du: gutienez Jainkoaren hitza zuzenki Idatzi Sakratuen bidez jasotzeko. Are bere esku dagoenean natur jakintzak ikasi behar ditu honela Jainkoaren handitasuna eta jakinduria beren baitan agertuko zaizkiolarik. Jakintza, bada, eta bereziki jakintza esperimentalak Jainkoaren obren ezagutza-modu bat litzateke. Lana efikazago eta onuragarriago egiteko ere abantailen sortzaile izan daiteke.

Max Weber-ek dioenez<sup>8</sup>, kapitalismoaren izaeratzeko berezi baten aitzinean gaude: langile libroz

osotutako lanaren erakundetze sistematikok, jakintza eta teknologia aurreratuenak erabiltze, eta merkatuen hedaturak eta kontabilitate hobatuak karakterizatuta denarekin, alegia.

### **Errobotak eta ordenadoreak langile**

Kapitalismoaren bilakaerarekin nola kapital pribatuek hala publikoek, pixkanaka, inbertsio handiak eragingo dituzte ikerketan, teknologia eta automatizazioen bila. Industriaren sortze beretik automatizazio-forma batzuk ezagunak zaizkigu: aurrez araututako makinek manualki egindako lanaren tokia hartzea lortzen dute, adibidez. Hemeretzigarren mendean automatismoz ari den prozedura edo material anitz ezagutzen da. Luzaz, gure mendearen erdirarte, produkzioko operazioak automatizatzea mekanikak, fisikak, hidraulikak, pneumatikak eta elektrizitateak eskaintako aurrerapenekin egingo da. Disziplina desberdin hauek eskaintakoak dispositibo materialetan hiru ordenako arazoak erabakitzea baimentzen zuten: lan industrialaren automatizazio orok daraman motorizazioa, transmisioa eta operazioa, alegia.

Langabeziari dagokionean, esan dezagun automatizazioaren lehen eragin honek jadanik ondorioak utzi zituela. Hor daukagu mende honen erdirarte hainbat esku-lan okupatzen zuen lurlangintza, urtez urte, beheraka etortzen. Ekonomiaren lehen sektorea dominatzaile izatetik eranskin izatera igaroko da. Gure egungo Euskal Herrira mugatuz gogora dezagun Hegoaldean Europako batezbestekoan gabiltzala, hots, % 7 inguruan (Estatu

Batuetan % 3 da, eta hori omen da 2000. urtean Europako Elkarreak lortu nahi lukeena). Iparraldean berriz azken hamarkadak arte hirugarren sektorearekin dominatzaile izan den lurlangintza, egunetik egunera, behera ari da. 1992ko azken datuen arabera, 250.000 biztanletarik 26.500 dira nekazaritzatik bizi direnak (% 10,6). Eta beherakada hori oraino nabarmenago gertatzen da Lapurdiko kostaldean: Hendaiako kantonamenduan hamar urtez, 24.219 biztanleen artean, 370 baserri erabiltzetik 240ra igaro dira (-% 33), eta Donibane Lohitzuneko kantonamenduko 20.912 biztanleen artean, 233etarik 134era (- % 42).

Mende honen erdiaz gero automatizazioa aldi berri batean sartzen da: informatika eta elektronika aitzineko disziplinekin konbinatuaz emaitza berrietara ailegatuko da. Honela automatizazioak aplikazio alor berriak aurkituko ditu. Bulegoetako eginkizunak automatizatzen dira: kontabilitatea, stokak, pertsonala, kontuak kudeatzeko orduan lagungarri gertatzen baita. Berdintsu ere prozesu jarraituei dagokienean, hots, petrokimian, berunaren fabrikazioan, kautxuarenean, siderurgian, zementuarenean, energia nuklearrarenean, etabar. Distantziako pilotajea ziurtatzeko beharrezko diren operazio izaeraren informazioak tratatuz lanegiten duen ordenadorea da automatizazio berri honen eredia. Baina elektronika bera bezala ez da sartzen **serie-produkzioan** (elektrotresnak, autoak, jantzigintza, etabar...) 70.eko hamarkadara arte. Hain zuzen, erroboten agerpenarekin gauzatuko da.

Dena dela, prozesu jarraituen edo propietatearen alorra batetik, eta formen serie-produkzioa bestetik hogei urteren buruan plazaratzen dira. Eta hau bai iraultza bilakatuko dela langabeziaren arazoari doakionean!

Zer gertatzen da? Kapitala duena berehala jabetzen da informatika eta elektronikaren aurrerapenak produkzioa lortuaz (eta batzuetan gura den guzia errazki multiplikatuz) langilea ekonomiaren bigarren eta hirugarren sektoreetatik desplazatzeko ahalak eskaintzen dizkiola. Eta ezaguna da kapitalaren eragileek betidanik langileriari esker aberastasunak lorturik ere, langile hori subjektu exigente eta aktibo bihurtzean, bere presentzia inkomodo kontsideratu dutela, gaitzetsi ez dutenean. Orain jakintzari esker produkzioa langile minimoekin edo langile gabe nahierara egiteko okasioa etortzean, kapitalismoak betidanik bere izpirituan daraman gero eta aberatsago bihurtzeko nahia birraktibatzen ikusiko da. Honela bada, gizaki-emaztekiek gatazka deitzen dugun zioarekin topatzen gara. Berau da bada gaur egungo krisiaren azken arazoia, nahiz eta modu desberdinetako atxakiak aireratu. Honela, langileak botatzeko justifikazioa atzeman behar eta errekonbertsioaren diskurtsoa plazaratuko dute. Hainbat eta hainbat aldiz lantegietatik langileak ehunka eta milaka botatzean konpetibitatearen arazoia eman izan da. Aldi berean krisia aipatu eta goraiatu da: energiaren eskasia, materia primen lorpen zaila, etabar, bezala definitu izanaz.

Ezbairik gabe, europar eta mendebaldar kapitalismoak gero eta



erresistentzia handiagoak dituela hirugarren munduan nahierara haiek esplotatzen jarraitzeko. Zorionez, gizaki-emaztekien duintasun-egoera unibertsalarentzat! Baina, europar eta mendebaldar kapitalismoaren benetako arazoa besterik da: belaunaldiz belaunaldi hainbat eta hainbat arbasok sistema kapitalistaren bilakaerari ekarritako emaitza amankomuna jakintzan inbertiturik aurrerapen teknologikoetara heldu denean bakun batzuek hori propietate pribatu bihurtuz gero milioika jende miseriarra kondentatzen dutela. Honela bada, argi eta garbi dago, egungo krisia ez dela produkzioarena, **apropiazioarena** baizik. Eta hau Europako egoera aztertzean klarki konpreni daiteke: teknologia berrien agerpena eta hedapenari jarraitzen bagatzaizkio, estatuz estatu, eta estatu barnean eskualdez eskualde, langabeziaren sare hierarkizatu bat dagoela irekita aurkituko dugu.

1990ko Europan hamabi milioi langabetu zegoen. 1992ko azken hilabetean hamasei milioi dira. Eta Europako Sindikatuen Konfederazioko iturriek azpimarratu dutenez 1993an hogeit hamar milioi langabetu egongo dira. Estatuz estatu, Herbehereetan, Flandrian (Estatu federala berehala), Danimarkan, Suitzan, langabezia % 5ren azpitik dabil. Alemanian (bi estatuak elkartuz gero) % 7,8ra iritsi da. Erresuma Batuan % 9,8ra. Frantzian % 10era. Espainian, % 15era. Eta Euskal Herrian % 21,2koa zen langabezia 1992ko urrian.

Borroka ezinbestekoa gertatzean estatu batek besteari, eta eskualde

batek besteari, bere langabeziaren faktura pasatzen dio. Eta bestela izan ez zitekeenez, sarean teknologia berriekiko ahulen gertatu denari beste guzieren soberakinak jasotzea eta ondorioak pairatzea tokatzen zaio. Borroka honetan ekaitzetik zertxobait babesteko gizarteek dituzten erakunde desberdinen abileziazko aktuazioa gelditzen da. Baina, Euskal Herriak bezala bere erakundeak dependetziakozkoak dituenarentzat ugazaben onginahi edo urrikia besterik ez da aterabidetzat. Eta, 1970az gero Euskal Herriak bere estatu ugazabekiko bizi duen egoera gatazkatsua dela eta, espero zitekeenez, haien hira guziak gainean izanaz, langabezia gure askatasun bideak mozteko eta kastigatzeko, arma nagusi bihurtu zaie. Honela Euskal Herria langabeziaren zakarrontzi egin dute.

Bestalde Euskal Herri barnean ere langabezia sozialki indartsuen denak ahulen denari pasatzen dio. Gizaki-emaztekien arteko gatazkak alor hau ere dominatzen duela ikusten baitugu. Honela Euskal Autonomi Elkartearen azken datuen arabera gazteetarik (16-24 urte) % 49,5 langabezian daude. Eta emazteetarik % 32 langabezian aurkitzen dira. Serioski eta arriskutsu blokeatutako gizarte bat eraikia dugu.

Finean deskapitalizazio-arriskua ere badu Euskal Herriko ekonomiak. Puntu hau hobekien Nafarroako kapitalaren sareak duen konposizioak erakusten digu. Nafarroako lehen hogeit hamar industrietatik 15ek atzerriko kapitala baitute nagusi. Eta lanpostuen arabera neurtzen badugu atzerriko kapital horren indarra edo multi-

nazionalena, % 30 beraien esku daudela ikus daiteke. Eta arriskua diogu, zeren, multinazionalak nonbait egoteko duen arrazoi bakarra bere irabazien kriterioa baita. Aski baitute kanpoan merkatu berri nahigarri bat eraikitzea lekualdatzeko. Aski dutenez enpresa horietan salbuespeneko tentsio bat tokitik desagertzeko.

---

### Langabetuen psikologia

---

Langabezia, bere bertsio modernoan, azken funtsean, hau litzateke: teknologia berrien aurrerapenak, sortze prozesuan guzian artean ordainduak, batzuek berenganaturik propietate pribatu berri bihurtzean, beste gizaki-emazteki batzuek duintasunez bizitzeko beharrezko dituztenetatik at uztea.

Egoera hori sortzen delarik, bistan da, denek ez dutela berdin bizitzen.

Langabeziaren estatistikak aipatu ditugu. Zernahi gehiago zehaztuz ematen segi genezake. Hortaz ikasketak eta aipamenak, gaur egun aberatsak baitira. Halere, ez da gure aukera. Estatistika hotz eta abstraktu horien gibelean zer nolako gizaki-emaztekiak gordetzen diren miatu nahi dugu. Miaketa hori zenbait ehunka elkarrizketa jaso ondotik hautatutako eredu edo irudi bizien bidez agertuko dugu. Soslai hauek elkarren osagarri dira. Honela batez-bestekoak langabetuen psikologia kolektiboa seinalatuko digu. Hori lortzeko nik neuk prestatutako gidoi bat erabili dute elkarrizketagileek.

1.- Gidoia:

Lehen eredu edo irudi-emailea A.G.J. siglaz definitzen da. Duela 42 urte La Coruña-k sortua da. Gaur egun Zumarragan bizi da. Ikasketak lehen mailan amaitu zituen. 13 urterekin lanean hasi zen. Bere gurasoak La Coruñan sortuak dira. Gaur egun Beasainen bizi dira. Ikasketa gabeak dira. Aitak sutegian lan egin ondotik zahartzaroa du. Amak berriz etxeko lanak egin izan ditu.

- Noizbait lanik egin al duzu? -Bai, Lantegi batean langile soil bezala.
- Zenbat denboraz? Hogeitazortzi urtez.
- Lana utzi zenuenean, zure gogoaren aurka izan zen ala librok utzi zenuen edo nola izan zen? Duela urtebete lana utzi nuen, lantegia pikutara joan zelako. Itxi aitzin, bi urtez, lan arautua ukan genuen, baina, finean kale gorrian utzi gintuzten. Orain langabezia bizitzen naiz.
- Uste al duzu guzientzat aski lan badagoela? Uste dut geroz eta lan-eskasia handiagoa dagoela, eta bereziki ni bezala ikasketarik ez dugunok harrapatzen gaitu. Oro makinek egiten baitute. Lehen hiruk egiten zuten lana orain bakar batek egiten du.
- Uste al duzu progreso teknologikoak langabezia ekarri duela edo beste zerk ekarri du? Bai, gertatzen ari den langabeziaren errua makina horiek daukate. Jendeari ahotik ogia ken-

tzen die. Baina, berdin gobernuak ere errua du lanpostu berriak sortzeko agintza betetzen ez duenez.

- Ba al dakizu mendebaldeko Europan, produkzioaren masa orokorra goraka doala eta ontasunen pilaketa ez dela gutitu, goraka ari dela? Beno, hori iragankor izango da, zeren nire ustez herri guzietan baitaude langabeziaren arazoa, bistan da Japonia dugu salbuespen. Han oro biziki ongi eratua dagoenez guzientzat lana ere baitute.
- Zure buruaz arduratu beste egin-beharrik ba al duzu? Bai. Arratsaldean institutu publiko bat garbitzen duen emaztea, eta 15 eta 12 urteko haur bi ditut.
- Norbaitek duintasunez bizitzeko lana behar duenean lanik ezin lortua dela langabeziaren definizioa kontutan hartzen badugu: Zer sentitzen da beharrezko lana norbaiti ukatzen diotenean? Ezteus sentitzen da, eta batez ere nire kasua denez, norbera etxean dagoenean bere emaztea lanera doala ikusten duelarik.
- Bizitzarekiko, gizartearekiko dugun ikuspegia aldatzen al da? Bai horixe aldatzen dela. Langabeziaren nagoenetik langabetuekin gizartearen bidegabekoaz ohartun bilakatu naiz.
- Duzun egoeratik zer litzateke lehen balorea? Berdina izaten jarraitzen al duzu ala eta zure balore-hierarkia irauli da? Betidanik sinestu dut dirua garrantzizkoa dela. Baina, horrela nagoenez gero garrantzizkoa baka-

rrik ez, esentziala ere badela jabetu naiz. Mundu honetan dirua daukanak oro dauka.

- Besteekin harremantzea garrantzizko gertatzen al zaizu ala eta zure baitan ixten zara? Betidanik eletari izan naiz, baina langabeziaren nagoenetik zapuzti bihurtu naiz, eta umore-aldaketa zakarrak dauzkat.
- Langabetua gizartearen marjinatua da ala eta beste zer da? Inolako ezpairik gabe marjinaturik dago. Anitzek uste du lanik egiten ez badugu nahimenik ez dugulako dela, hots, alferrak garelako.
- Prestakuntzarik egiten al duzu, lan berri bat aurkitzeko asmoz? Ez zait iruditzen nire adina ikasketak egiten hastekoa denik. Horregatik nire semei beti diet ikasketak egiten saitzeko orain garaiz daudenean.
- Lan bila, Euskal Herritik at joatea noizbait pentsatu al duzu? Bai baina, nire semeek ez dute inola ere nahi. Eurek hemendik ez direla mugituko diote. Halere gauzak horrela jarraitzen badute lana eskainiko didaten edonora joan beharko dut.
- Erakundeek, langabetuei eskaintzen dieten asistentzia egokia al deritzozu? Baietz deritzot, baina, gobernuak lanpostuak sortuko balitu langabeziaren dagoen jendeari laguntzen ez luke horrenbeste dirurik gastatu beharrik.
- Borondatezko elkarteek eskaintzen duten laguntzari positibo al deritzozu? Gu bezalakoak okupatzeko

eta kontentatzeko asmatu-  
rikozokeriak besterik ez dira. Baina,  
nola kontent egon berrogei urterekin  
ezertarako ez dugula balio jabetzean.

Elkarrizketagileak: Amaia Larra-  
ñaga, Virginia Mazaira, Maria Jesus  
Velasco, eta Iratxe Zabala.

Euskaratzailea: Jokin Apalategi.

(Elkarrizketaren soslaia laburbilduz  
ondoko hau azpimarratuko dugu:  
Langabetua bigarren belaunaldiko  
inmigratutzat eman genezake. Forma-  
zio gutikoa da kasu hauetan gehienik  
ohi denez. Ondorioz langabezia  
berriarentzat lehen biktima edo  
biktima idealetarik da. Emaztea lanera  
doalako agertzen duen konplexua  
ohizkoa da, zeren bere fiertasan  
bakarra sendian beharrezko den dirua  
ekartzearena baita. Emaztearekiko  
berdintasunezko harremanik gabea  
ageri zaigu, orduan. Bere hurrekiko  
diferentzia ere nabarmena da: azken  
hauek bertako sentitzen dira. Hiru-  
garren belaunaldian horrela ohi da:  
arbasoen jatorriarekin baino lotura  
handiagoa dute euren sorterriarekin.  
Bestalde langabeziaren efektuak dira:  
betizu, eroskor, akonplexatu (alfer  
ote?) bihurtzea. Gobernua bere  
diskurtsoaren eta praxiaren arteko  
desegokitasunagatik epaitzen da.  
Borondatezko elkarteak “karitate”  
eragiletzat ematen dira. (Beharbada ez  
du beste motakorik ezagutu.)

2.- Gidoia:

Bigarren eredu edo irudi-emailea  
M.Z.Z. siglaz izendatzen dugu.  
Emakumezkoa da. Hogeitamalau urte  
ditu. Lekeitioan sortu eta bizi da.

Takimekanografia; klinikako medi-  
kuntza nuklearreko laguntzailtza;  
psikiatriako laguntzailtza; eta  
puerikultura eginak ditu. Gurasoak  
Lekeitikoak ditu. Aitak arrantza-  
ikasketak eginak ditu eta kostako  
patroi-lana egina du. Ama etxeko  
lanetan ari izan da.

- Noizbait lan egin al duzu? Bai,  
lehenengo, botikan urtet'erdia, gero,  
ambulatorioan lan ebentualak, eta  
azkenik, erreabilitazioan hiru urte.
- Lana noiz utzi zenuen? 1991ko  
urriaren 30ean.
- Gogoz kontrako lan uztea ala zuk  
hala nahita? Gogoz kontrako lan  
uztea, 3 urte baino gehiago lan  
egitean langile iraunkor deklaratu  
beharra zeukaten, eta hori ez  
zitzaiela komeni eta, kanpoan utzi  
ninduten.
- Uste al duzu denentzat aski lan  
badagoela? Ez, ez dago.
- Uste al duzu progreso teknologi-  
koak langabezia ekarri duela ala  
beste zerk ekarri du? Progreso  
teknologikoak, noski. Zeren gizona  
edo eskulana makinaz ordezkatzan  
baita. Bestalde egiten diren proiektu-  
ak ez dira aurrera eramaten edo  
ondo eramaten, diruak gaizki  
inbertitzen baitira. Dena gaizki  
antolaturik dago.
- Norbaitek duintasunez bizitzeko  
lana behar duenean lanik ezin lortua  
dela langabeziaren definizioa  
kontutan hartzen badugu: Zer  
sentitzen da beharrezko lana

norbaiti ukatzen diotenean? Frustazioa edo..., beno ni ez naiz aurkitzen beharrian gogorrean, baina, inpotentzia ere berdin sentitzen da. Are lan hori egin dezakezula, eta gainera lanpostu hori beharrezko dela eta inola ere kentzea ez zela komeni dakizunean.

- Bizitzarekiko, gizartearekiko dugun ikuspegia aldatzen al da? Horrek badu zerikusia norberaren izaerarekin eta bizi duen egoerarekin. Bai askotan aldatzen da. Gehienbat langabeziaren eskubideen azken hiruhilabeteetan bazaude. Ni oraindik hasieretan nago. Oraingoz lasai nago. Langabeziaren eskubidea ahalik eta gehien profitatu nahi dut beste lan bat topatu aurretik.
- Duzun egoeratik zer litzateke lehen balore? Horrelako egoera batean dirua izan daiteke, baina, niretzat ez da garrantzitsuena. Halere, kontutan izan behar da ni ez nagoela beste zenbaitzuek bizi duten egoera larrian. Niretzat garrantzitsuena harreman onak edukitzeen jarraitzea da.
- Besteekin harremantzea garrantzizko gertatzen al zaizu ala eta zure baitan ixten zara? Harremantzen saiatzen naiz, gainera horrela posibilitate gehiago eduki dezakezu beste lan bat topatzeko. Nik baditut esperantzak lan berri baterako.
- Langabetua gizartean marginatua da ala beste zerbait da? Neurri batean marjinatu gertatzen da zeren instituzioetan etabar gauza batzuetarako egoera horrek ere kontatzen baitu.

- Lan bila, Euskal Herritik at noizbait joatea pentsatu al duzu? Ez, momentuz ez!

- Erakundeek, langabetuei eskaintzen dieten asistentziari egoki al deritzozu? Uste dut gehiago egingo balute ere ondo etorriko litzatekeela, gainera alferrikako gauza askotan inbertitzen baitute. Noski, langabezia "es un saco roto", orduan, ez zaie komeni hor inbertitzea.

Horrezaz gain, laguntzak ondo etortzen dira jendea estimulatzeko.

- Borondatezko elkarteek eskaintzen duten laguntzari positibo al deritzozu? Bai.

Elkarrizketagileak: Begoña Zapirain eta Amaia Colina.

(Elkarrizketaren soslaia laburbilduz ondoko ondorio hauek ateratzen ditugu. Langabetu "komodo" baten aurrean gaude. Bere buruaren ahaletan konfiantzaz betea ageri da. Bere sendiak duen egoeratik, berak dituen ezagutzengatik, edo abarregatik. Bada horrelakoen multzorik ere gure gizartean. Erakundeek gehiago egin lezakete, baina... Borondatezko elkarteen jokabidea ere onartzen du besterik gabe.)

### 3.- Gidoia:

Hirugarren eredu edo irudi-emailea A.F.B. siglaz izendatzen dugu. Gasteizen jaioa da duela hogeitun urte. Zumarragan bizi da. Oinarrizko Hezkuntza Orokorra egina du. Hamazazpi urterekin lehen lanpostu bat ukan

zuen. Gurasoak, aita Araian, eta ama berriz Agurainen sortuak ditu. Lehen mailako ikasketak baizik ez dituztenak. Aitak eskulana egiten du eta ama etxeko lanetan aritzen da.

- Noizbait lan egin al duzu? Bai, igeltsero bezala, eta baita erregailuen saltzaile bezala ere.
- Zenbatez lanean iraun zenuen? Lehen lanbidean bost hilabetez, eta bigarrengoan hiruz.
- Gogoz kontrako lan uzteak ala zuk hala nahita izan ziren? Lehena soldaduskara joan beharrez utzi nuen, eta bigarrena lan-hitzarmena amaitu zitzaidalako. Biak nire gogoaren kontra.
- Uste al duzu denentzat aski lan badagoela? Ez, gaur egun ez dago aski lanik, zeren jende anitz baitago lan-adinean.
- Uste al duzu progreso teknologikoak langabezia ekarri duela ala beste zerk ekarri du? Bai, langabezia progreso teknologikoaren jarraipen zuzena uste dut. Informatikak gizarteari eraso dionez gero, gizakia fabrikentzat nahitezko izatetik, bigarren mailako izatera igaro da. Lehen makina gizakiaren zerbitzuan zegoen, aldiz orain alderantziz gertatzen da.
- Ba al dakizu Mendebaldeko Europan produkzioko tasa orokorra igotzen ari dela eta ontasunen pilaketa gero eta handiagoa dela? Konstatazio honi zer deritxozu? Ez nago oso informaturik gaian,

baina konprenitu dudanez herri horiek langabezia ekiditeko produkzioa modu inkontrolatuan gehitu dute. Gisa honetan mundu guziak lan egiten du. Neuri ez zait ongi dagoenik iruditzen, zeren esan duzunez produkzioak ontasunen pilaketara eraman gaitu eta honek kontsumismora bultzatzen gaitu.

- Zuk zutaz arduratu beste ardurarik ba al duzu? Ez, eta egoera horretan inoiz ez aurkitzea espero dut.
- Norbaitek duintasunez bizitzeko lana behar duenean lanik ezin lortua dela langabeziaren definizioa kontutan hartzen badugu: Zer sentitzen da beharrezko lana norbaiti ukatzen diotenean? Amorrua, zeren balio duzula agertzea oztopatzen baitizute.
- Bizitzarekiko, gizartearekiko dugun ikuspegia aldatzen al da? Zeharo aldatzen da, oro askoz ere zailago eta negatiboago bilakatzen da. Lehen pozik aurkitzen nintzen gizartean, orain defraudaturik sentitzen naiz. Beti baikor eta irekia izan naiz, baina langabezian nagoenez gero anitz itxi naiz, oro absurdo iruditzen zait. Lanak aktibo eta baliagarri sentiarazten du, aldiz lanik egiten ez duzularik oztopo bat bezala atzemanik gizarteak arbuia-tuta sentitzen zara.
- Duzun egoeratik zer litzateke lehen balore? Berdina izaten jarraitzen al duzu ala eta zure balore-hierarkia irauli da? Niretzat gauzarik balio-tsuen osasuna da, nahiz eta onartu diruak arras hurbiletik jarraitzen

zaiola. Bizi garen kontsumoko gizartean ekai dena lar baliotzen ari gara.

- Besteekin harremantzea garrantzizko gertatzen al zaizu ala eta zure baitan ixten zara? Besteekin harremantzeari garrantzizko deritzot, pertsonekin harremantzea oso lagungarri da, halere, zenbait unetan bakardadea bilatzen duzu, zeure mundu propioan ixtea, alegia.

- Langabetua, gizartean marjinatua da ala eta beste zer da? Marginazioa norberarengandik dator. Anitzetan langabetua gutxiesten da. Ez da behar hainbat autoesti-matzen.

Hel daiteke uste izatera, lanik ez duela ezertarako baliorik ez duelako.

- Prestakuntzarik egiten al duzu, lan berri bat aurkitzeko asmoarekin? Ez, orain konkretuki ez dut ezer egiten, nahiz eta zerbait pentsatu beharko dudana, zeren luzaz ezin baitezaket goera honetan iraun.
- Lan bila, Euskal Herritik at joaterik noizbait pentsatu al duzu? Ez, ez dut inolako asmorik. Espero dut Euskal Herrian aurkituko dudala.
- Erakundeek, langabetuei eskaintzen dieten laguntzari egokia al deritzozu? Lotsagarri deritzot. Langabetuarentzat ez dago inolako laguntza berezirik. Gainera lan-aukerarik ez dute eskaintzen.
- Borondatezko elkarteek eskaintzen duten laguntzari positibo al deri-

tzozu? Bai, onuragarriak dira. Ustedut bizi duzun monotoniatik eta tristuratik ateratzen laguntzen dutela. Neurri batean arazoak ahanztarazten dizkizute.

Elkarrizketagileak: Amaia Larrañaga, Virginia Mazaira, Maria Jesus Velasco eta Iratxe Zabala.

Euskaratzailea: Jokin Apalategi

(Elkarrizketatuaren soslaia laburbilduz ondoko hau azpimarratuko dugu: Hogeituro urteko gazte fresko bat da. Gazteriaren gehiengoaren espone bat. Ez balioko ote naiz gizarte honetarako ezbaiari autoestima azkartu beharra kontrajartzen dio. Erakundeek buruzko iritzi negatiboari kontrajarrikerik, borondatezko elkarteek buruzko positiboa agertzen digu. Horien barrenean zeintzuk jartzen ote ditu "karitate egile" ala eta elkartasunezko erresistentziaren eraikitzaile? Bietarikoak, agian).

4.- Gidoia:

Laugarren eredu edo irudi emailea J.R.D.G. siglaz izendatzen dugu. Urretxun sorturik bertan bizi da. O.H.O. 7. urteraino ikasten ibilia da. Gurasoak, aita Sorian eta ama Segovian sortuak dira. Ikasketak lehen mailakoak dituzte. Aita langile soila da eta ama etxeko lanetan aritzen da.

- Noizbait lan egin al duzu? Bai. Igeltsero lau urtez. Udaletxean sei hilabetez. Urtzagintzan bi urte eta erdiz.

- Lana noiz utzi zenuen? Duela sei hilabete utzi nuen.
- Gogoz kontrako lan uztea ala zuk hala nahita izan zen? Gogoz kontrakoa, noski.
- Uste al duzu denentzat aski lan badagoela? Ez, arras lan guti dago eta eskulan anitz lan bila.
- Uste al duzu progreso teknologikoak langabezia ekarri duela ala beste zerk ekarri du? Uste dut langabezia teknologiaren aurrerapenei eta gobernuen politikari zor zaiela.
- Ba al dakizu Mendebaldeko Europan produkzioaren tasa orokorra igotzen ari dela eta ontasunen pilaketa gero eta handiagoa dela? Konstatazio honi zer deritzozu? Uste dut Mendebaldeko gizakiak lanarekiko kontrola galdu duela. Egunaren luzeena fabrian lanean igarotzen du. Gizartearen esklabu bilakatu da. Lan-antsia horrek ontasunen pilaketa erraldoiak produzitu ditu, ekonomiazko krisia sortuz.
- Zuk zeure buruaz arduratu beste ardurarik ba al duzu? Ez.
- Norbaitek duintasunez bizitzeko lana behar duenean lanik ezin lortua dela langabeziaren definizioa kontutan hartzen badugu: Zer sentitzen da beharrezko lana norbaiti ukatzen diotenean? Amorrua sentitu nuen, eta aldi berean gizartearekiko jazartuaz gero protestan emateko gogo ikaragarria, zeren uste baitut inork ahaltsuena izanik ere ez duela eskubiderik lana bezain beharrezko den zerbaitetik norbait baztertzeke.
- Bizitzarekiko, gizartearekiko dugun ikuspegia aldatzen al da? Bai aldatzen da. Zenbaitetan gizarteak lagundu ordez, bizkar ematen dizu.
- Duzun egoeratik zer litzateke lehen balore? Berdina izaten jarraitzen al duzu ala eta zure balore-hierarkia irauli da? Gezurra badirudi ere langabezian nagoenez gero zentzudunago bilakatu naiz. Lan egiten nuelarik nire bizi osoa diruaren hurbilean itzultzen zen, orain aldiz hain materialista ezin izan daitekeela jabetu naiz, nahiz eta diruak baldintzatzen gaituen, osasuna eta laguntasuna bezalako baloreak haren gainetik daudela, alegia.
- Besteekin harremantzea garrantziko gertatzen al zaizu ala eta zure baitan ixten zara? Harremantzea beharrezko da, aldiz zure baitan ixtea galgarri da.
- Langabetua gizartean marjinatua da ala eta beste zer da? Langabetu kondizioak ez dut uste marjinatu bihurtzen zaituenik, uste dut egungo gizarteak beste kolektibo batzuk areago baztertzen dituela.
- Prestakuntzarik egiten al duzu, lan berri bat aurkitzeko asmoarekin? Astean hirutan ingelesa erakusten duten akademia batera joaten naiz, nahiz eta honek lanik ekarriko didanik ez dudan uste.
- Lan bila Euskal Herritik at joatea noizbait pentsatu al duzu? Bai, aste



saindua igaroaz gero Madrilera joan nahi dut. Hau penaz utziko badut ere, hemen baititut nire familia eta lagunak oro. Badakit oso gogorra egingo zaidala, baina ikusirik Euskal Herrian ez daukadala inolako lan-ahalik, ezinbestezko zait.

- Erakundeek, langabetuei eskaintzen dieten asistentziari egoki al deritzozu? Ahalegintzen direla ezin ukatu, baina arlo askotan hobetu daitekeena da: langabezia mugarik gabe ordaindu behar lukete, hots, duintasunezko lan berri bat aurkitu arte guzian.
- Borondatezko elkarteek eskaintzen duten laguntzari positibo al deritzozu? Ni neu elkarte horiek ez naute konbentzitzen.

Elkarrizketagileak: Amaia Larrañaga, Virginia Mazaira, Maria Jesus Velasco eta Iratxe Zabala.

Euskaratzailea: Jokin Apalategi

(Elkarrizketatuaren soslai egitean ondoko hau azpimarratzen dugu: Gutxi agertzen den errebeliorako aitormenarekin aurkitzen gara. Beharbada bere laneko azken urteetan bizitako giroak hemeretzigarren mendeko mugimendu sozialen tradizioa dastatzera eramanez izan du: langile-mugimendu errebin-dikatzaile eta erresistentearen izpirituarekin, alegia. Halere, esan behar dugu langile-mugimenduak hainbat urtez bere ahultzea justifikatzeko erabili duen bizitzaren erraztea, orain anitzentzat langabezian bilakatu delarik, ez dela iraultzazko mugimendu sozial berrien suspertzera isuri.)

5.- Gidoia:

Bostgarren eredu edo irudi-emailea R.G. siglaz izendatuko dugu. Barakaldon sortua, gaur egun Santurtzin bizi da. Hogeitalau urte ditu. U.B.I. mailako ikasketak burutuak ditu. Aita barakaldoarra, eta ama Burgosen sortua ditu. Aitak heziketa profesionala egin zuen. Amak berriz Eskolako Agiria lortu zuen. Aita enpresa-zuzendaria da, ama etxeko lanatan aritzen da.

- Noizbait lan egin al duzu? Bai.
- Zenbat denboraz? Hamabost egunez.
- Gogoz kontrako lan uztea ala eta zuk hala nahita izan zen? Nire gogoz utzi nuen.
- Uste al duzu denentzat aski lan badagoela? Lan aski badago baina interesatuki gaizki banatzen da.
- Uste al duzu progreso teknologikoak langabezia ekarri duela ala beste zerk ekarri du? Progreso teknologikoa ez da faktore determinantea. Gertatzen Japonia da munduan aurrerapen teknologiko gehien duen herria, baina langabezia eskasa du, zeren inbertsio-politika berezi bat baitarama. Herri horretan langabezia kapital handiek aberastasunak pilatzeko duten antsiaren ondorioa da, enpresek irabazien % 10 besterik ez baitute berrinbertitzen. Gertakari honek atzerapen teknologikoa dakar eta ondorioz nazioarteko merkatuan atzerapen konpetitiboa biltzen du,

horretan neurtzen baita enpresa baten bideragarritasuna.

Atzerapen hauek bi faktore funtsezkotan dute eragina enpresetan: kalitateari dagokionean, ahulago eginez, eta prezioei dagokionean, garestiago bilakatuz. Produktu amaituaren garestitzeak ondorioz merkatua galtzea dakar, erreku-peratzeko arras zaila dena enpresa konpetitiboa egiteko beharrezko den plusbalien parte bat ez inbertitzen jarraitzen bada. Enpresa bat besteen erritmo berean modernizatzen ez bada konpetitibitatea galtzen du. Konpetitibo ez bada ez du irabazirik egiten. Eta irabazirik egiten ez badu enpresarioarentzat (nola pribatu hala estatuarentzat) ez da errentagarri. Eta errentagarri ez delarik enpresarioak erortzen uzten du. Itxi egiten du.

Ondorioa: horrelako enpresak bere teknologi maila izpienean ere ez berritzean langabetu-kopurura eraginaz ondoez soziala dakar. Aurrerapen teknologikoan parte ez delarik oraino handiago bihurtzen da langabetuen emaitza.

- Ba al dakizu Mendebaldeko Europan produkzioko tasa orokorra igotzen ari dela eta ontasunen pilaketa gero eta handiagoa dela? Konstatazio honi zer deritzozu? Edonorentzat ezagun da Mendebaldeko ekonomia krisian sarturik egonda ere europar bankuek igarotzen den urteko beren irabaziak biderkatzen dituztela. Ezaguna da ere bankuak direla estatuaren

enpresa gehienen eta enpresa pribatuen benetako jabeak. Hiritarren galdera hauxe da, bankuek nola iharduten dute urtez urte beren irabazietan goraka egiteko, aldi berean produkzio-gehiarriak geroz eta larriagoak direnean, herrirentzat galera arazotsuak gertatuz, eta batez ere langabezia pixkanaka bada ere beti gehitzen ari denean, eta gizarteak orokorki erosteko ahalmena galtzen duelarik. Kapitalek nola lortzen dute aberastasuna batez ere diruari jariakortasuna emateko xedearekin sorturiko antsia kontsumista dela eta kanpoko zorren ordainketa defizitarioa denean. Bere ibilaldiaren amaieran hastapen puntura itzultzen da dirua, kapitalistak duen botereagatik eskuratzten duen dirua, alegia, hiritarrari inola ere beharrezko ez dituen kontsumo-ontasunak lortuz zoriontasun artifizialaren estatua eraginik munduan ahalezko direnen artean zuzenen eta orekatsuen bailiran bizitza-sistema hau onarraraztearen truke.

- Zuk zeure buruaz arduratu beste ardurarik ba al duzu? Ez!
- Norbaitek duintasunez bizitzeko lana behar duenean lanik ezin lortua dela langabeziaren definizioa kontutan hartzen badugu: Zer sentitzen da beharrezko lana norbaiti ukatzen diotenean? Dezepzioz, desenkantuz eta kasu gehienetan etsipenez beteriko sentimentu bat agertzen da. Nik neuk pertsonalki lan bat errefusatzegatik haserretzeko ez daukat inolako arrazoirik, zeren pentsatzen baitut

enpresario bezala jardungo banu betetzeko neukakeen funtziorako pertsonarik kalifikatuena hartuko nukeela. Enpresario batek funtzio bat betearazi nahi duelarik ez baitu zentzurik gutiago kualifikaturiko pertsona bat hartuz arriskuak hartzeak. Horrela bada baldin eta lanpostu baterako konkurtsora aurkezten banaiz eta irabazten badut beti onena naizelako irabazi dudala pentsatuko dut, eta alderantziz beste bat hartzen badute nik baino gaitasun hobekak dituelako dela, alegia. Bestalde, nik inola ere kritikaturiko ez dudana "entxufismoaren" gora-behera dator. Norbaitek lanpostu bat lortzeko "entxufe" bat erabili badu ongi egin du, zeren nik baldin baneuka gauza bera egingo bainuke. Arazo bakarra hau da gehienetan aukera horiek talde sozial lokalizatu batek bakarrik ohi dituela.

- Bizitzarekiko, gizartearekiko dugun ikuspegia aldatzen al da? Lanpostu baten eskariari ateak ixtean deskonfiantza, agresibitatea, intolerantzia, inkonformismoa, etabar, sentimentu ezezkorrenak aragotzen dira. Sentimentu guzi horiek norabide gabe jaurtitzen dira, behin estatuari, behin gizarte orokorrari, behin zuzenki lan ukoa egin dizunari eta baita ere ailega daiteke norberaren sendi propioarengana edo ingurunearengana sostengufaltaz akusatzen delarik. Sumindurik zaude, baina ez dakizu mundu guziarekin edo zeure buruarekin.

Indarrezko pertsona bazara, eta zeure baitan konfiantzaduna, agian

ez duzu hain erraz amore emango eta eskubidez doakizun egoera sozial baten bila borrokatzen segituko duzu, baina menpeko eta ahul bazara etsipen-sentimentuan murgilduko zara honen esanahi guziarekin: gutxiagotasun-sentimentuarekin, oztopo parasitario izatearen sentimentuarekin, porrot sozialaren sentimentuarekin edo zenbait aldiz gizartearentzat kutsagarri daitekeen elementu bezala edo eta bizitzeko eskubidea eta inor molestatu gabe beste ezer ez duen "eskala sozialeko azken elementu" bezala. Gaur egun konformismo-sentsazioa da nagusi, gizabanakoa "langabetuen" klase sozial berriaren barrenean integraturik sentituzetik datorrena, eta maleruski ugari izatean ondoko esaldi honen esanahira makurtzen da: "askoren gaitza, zozoen kontsolamendu".

- Duzun egoeratik zer litzateke lehen balore? Leialtasuna edo fidelitatea. Une horietan behar du langabetuak bere hurbilekoetatik, sendiarteakoak edo lagunak izan, sostengua. Egoera hain horrelako gertatzen da non gizabanakoak bere buruarekiko ziurtasun-falta somatzen baitu eta ezezkorki baloratzen hasten baita, eta horrelakoan produkzitzen diren emoziozko desorekak gainditzeko sostengu berezi bat beharrezko gertatzen zaio.

Langabetua gutxiagotasun-konplexuz infrabalaratuz gero barnerapenik sakonenera heldu agresibitate ankerrenera igaro daiteke. Arazo posible horiei

sendiartekoen eta lagunen jarrera-aldaketak geitzen bazaie bere lan-egoeragatik erasotuz edo kulpabilizatuz, gizabanakoa marjinatu bezala jokatzeko hastera bultza dezake, lan-munduarekin borrokatzeko gogoia galtzeraino eta arazo sozialak katea irekitzeraino: drogak, alkohola, delinkuentzia, sendiarteko arazoak,...

Halere, bere ingurugiroan aldatzeko ez badago eta gainera sostengua agertzen bazaio gizabanakoa bere egoeraz arduratzen eta baikortasunez aterabidea antzematera helduko da. Gizabanakoaren ingurune sozial hurbilena aldatzeko gabe mantentzea eta aldatzen bada sostengu emateagatik izatea garrantzitsua da bere egoera igarokor bezala eta inola ere ez marjinazio bezala soma dezan. Guzi hau sendiartekoek eta lagunek leialtasuna eta fidelitatea eurek beste une batean beharrezko izan dezaketen giza balore bezala izatearen arabera dago. Leialtasun hori karitatearekin edo tamaltasun-sentimentuarekin konfunditua ez izatea garrantzizkoa da. Gizabanakoak desbidazio horiek sentimentu errealak direla susmatuko balu, apalduz senti liteke eta hain baikor zen prozesua alderantzika lezake.

- Berdina izaten jarraitzen al duzu ala eta zure balore-hierarkia irauli da? Mundua ikusteko kolorea arrosatik beltzera gradualki aldatzen dizu. Zure prestakuntza aski profitatu ote duzun planteiatzen zara eta zu zeu eztabaidatuz gero tokatu zaizun

gizarterako zure balioa ezbaian jartzen duzu.

Egoera ondoko hau da: bizitza osoan egun batez lan-munduarekin borrokatzeko prestatu bazaituzte, eta egun hori heltzean bertan tokirik ez duzula konstatatzen baduzu, zeure buruaz ukan dezakezun konzeptua aldatzen zaizu gizar-tearentzat balio gabe zarela sentitzean eta zeure arazoa psikologikoa ez ote den dudak agertzen zaizkizu, hots, egokitze sozialaren arazoa, pertsona normala ala ez, ala eta ximpleki suerte txarra. Azkenean gelditzen zaizun erantzun bakarra hau da: ez duzu balio, gizar-tean ez zara baliozko eta hortik aitzina beste “kalbario psikologiko” bat hasten zaizu, hots, gizar-teak eskatzen duen minimo hori ez lortzearen hobenduna atzeman beharrena.

- Besteekin harremantzea garrantzizko gertatzen al zaizu ala zure baitan ixten zara? Egoera honetan harremantzea ezinbesteko gertatzen da konformismoa edo etsipena gainditzeko. Baina hain kompetitiboa den gizarte honetan dirua irabazteagatik borrokatzea eguneroko ogi denean, langabeziak baldintzatu egiten zaitu beste batzuekin harremantzeko ere, eta are gehiago beste horien egoera sozial ona dela eta beren bizitza-maila zurea baino askoz hobea dela dakizunean. Langabeziatik at dauden gizabanakoekin sozialki ezin konpetituak sorturiko gutxiagotasun-sentimentuak zuzendutako jarrera bat dela uste dut.

Gizarte honetan pertsonak beren botere ekonomiko eta sozialagatik eta inola ere ez beren giza balo-reengatik neurtzen baitira. Posiziorik eta botere ekonomikorik ez baduzu zure porrot egindakoaren egoerak besteek gutxiagotu eta duintasun gutiko ikusten zaituztela pentsa dezakezu. Hau pentsatzeak esan nahi du nik posizioa eta dirua banu gisa horretan jokatu nukeela.

- Langabetua gizartean marjinetua da ala eta beste zer da? Uste dut gizarte honetan langabetua maleruski eta zoritxarrez gero eta gutiago dela marjinetua. Zorionez marjinetu-mota oro (gizabanakoak aukeratzen ez duena) ekidin behar den degradazio sozialaren forma bat delako eta zoritxarrez langabetua ez bada gehiago marjinetzen gizartearentzat pertsonaje arrunt bilakatu delako, hots, gaur egun arras normala baita sendi edo lagunarte bakoitzean norbait langabetu izatea edo pertsonalki egoera hori pairatu duena atzematea. Langabetuaren zabaltze-prozesu honek egoeraren konprentzio hobea eta marjinezio-maila eskasagoa bat baitaramatza.

Langabetuaren integrazio sozial handiagoaren prozesu hau dela eta, lan egiten segitzen duten pertsonen gehiengoa, noizbait langabezian egonak ala ez, egoera honetaz berehala ahanzten dira eta langabetua normalitate kontsideratzen den horretatik arras berezi ikusten delarik ondoko aipamen hauek bezalakoekin deskribatzen da: "oso suerte txarreko pertsona", "pertsona alferra", "intelektualki

ahalik gabeko pertsona", are langabetuak lana atzemateko orduan esfuertzo eta autoestima gabe agertuz erakusten duen interes-falta azpimarratzen da. Gizarte aktiboaren aldetiko jarrera agresibo hau egunetik egunera enganiagarriki finkuatuago dagoen ideia den dirua lanean sartzen diren orduan arabera edo jartzen den esfuertzoarekin irabazten dela dioenetik etorri dator. Langile aktiboak ez baititu bereizturik onartzen lana eta dirua, eta gisa horretan langabezian dagoen pertsona batek absolutuki ezer ez egitearen truke kobra dezan (lan egin duenean bere irabazietatik baztertu diotena) zail gertatzen zaio. Baina geroz eta orokorrago diren gogoeta hauek, langabetuari ematen zaiona, irrigarri dela onartu gabe, langabetuaren egoera desesperagarri dela kontutan hartu gabe, etabar, lantegi munduan dagoen zapuzketa sozialaren ondorio ohi dira.

- Prestakuntzarik egiten al duzu, lan berri bat aurkitzeko asmoarekin? Bai, ikasten ari naiz.
- Lan bila, Euskal Herritik at joatea noizbait pentsatu al duzu? Bai, etengabe. Uste dut Euskal Herriaren etorkizuna dauzkan lan-eskaintzak galtzetik igarotzen dela. Ondoko bost urteetako etorkizuna bada beltza datorkigu, eta jadanik lan egiten dutenentzat egoera txarra bada, beren ikasketak egin ondotik lan-mundura lehen aldiz helduko direnentzat zer esanik zapaltzailea izango da. Ezarririk dagoen Euskal Herriaren desmantelazio industrialari, urtez urte nola atzerriko hala barreneko inbertsioen gutxitzea

jarraituko baitio, eta horrek ekonomiazko beste faktore batzuekin bat lan soberakin handi bat sortuaz gero Euskal Herriak kanpoko eskualdetatik (Galizia, Extremadura, Andaluzia...) jasotzen zuen inmigratuen prozesua kontrako norantzak bihurtzera garamatza.

- Erakundeek, langabetuei eskaintzen dieten asistentziari egoki al deritzozu? Gaur egun legez indarrean dagoen langabetuen mantenu-saria ez da bakarrik duina (ez dena), gainera ez baitu langabeziaren arazoa konpontzen. Langabezia ez da denbora mugatu batez diru pixka bat emanez konpontzen zeren egoera horretatik ezin baita lanik jalki, azken finean aterabide erreal bakarra dena, aitzitik xingleki gizabanakoaren egoera traumatikoki arindu ohi da, hots, kolpe batez maila handi bat galdu ordez, bi alditan galtzen laguntzen dizu. Langabezia bizitzako pasarte bat (2 edo 4 hilabetekoa) balitza langabetuen mantenu-sariaren erabilera onargarri gerta liteke, baina gaur egun ageri denez egoera betirako bilaka daitekeenean konformismo-sentsazio bat sortzen da langabetuan, bere bizi ahalaren neurria batezbestekotik behera eroriz, automarjinaziora bideratzen delarik.
- Borondatezko elkarteek eskaitzen duten laguntzari positibo al deritzozu? Nahiz eta gehienez beren asmoak eta egintzak onak eta estakurugabeak izan eta bereziki erakundeen aldetik daitekeen hutsegitea estaltzera datozenean, borondatezko elkarteek anitzetan

erlijio-kutsukoek, ez didate inolako konfiantzarik ematen eta zenbait aldiz oportunistatzat izendatuko nituzke. Hala eta guziz gogoko den laguntza bat jasotzen delarik, nondik datorren da gutienekoa, nahiz eta kasu batzuetan hurbilagoetik begiratu beharko litzatekeen.

Langabetuaren egoera jarraituak sortzen dituen zapuzketak eta desengainoak gizabanakoaren baitan ahulezia dakarte eta egoera horretan daudenetatik janaritzen diren elkarte benefikoenzat jende interesduna da nahiz eta irabazi ideologikoak besterik ez lortu, noski. Hala eta guziz ez dut uste kaltegarri eta suntsitzaile direnik.

Elkarrizketagilea: Fatima Jiménez Acebrón

Euskaratzailea: Jokin Apalategi

(Elkarrizketaren soslaia langabetu "faltsu" batena bezala izendatuko genuke, zeren bere borondatez (arrazoien batzuegatik, noski) zuen lana utzia baitu. Halere, gizartean kategoria hau eman bide da. Gainera, enpresa-zuzendari den aita edukitzeak zezenak langaren bestaldetik ikustera daramala pentsa genezake. Lan bilako aukeretan kriterioak finkatzeari buruz ematen dituen iritzietan enpresari dirudi. Halere, harrigarria gertatzen da beste alor batzuetan duen langabetuarekiko sentiberatasuna. Are gogoeta argiak eta iragarleak ageri ditu gizartearen jokabideko hainbat alorrez. Beharbada bere gurasoekin ez du harreman onik eta behar hainbat konfiantzarik etorkizuna konpontzeko orduan? Baina, ez dut errealki datu hau ezagutzen.)

- 6.- Gidoia:
- Seigarren eredu edo irudi-emailea A.C.E. siglaz izendatuko dugu. Emakumezkoa eta gaztea da. Hogei urtekoa da. Tolosan sortua da. Soziologiako lizentzia prestatzen ari da. Gurasoak, aita inmigratua, lehen mailako ikasketak egin ondotik kalderero da lanbidez, eta ama berriz, lehen ikasketetan gelditua, etxeko lanetan aritzen da.
  - Noizbait lan egin al duzu? Bai.
  - Zenbat denboraz lan egin duzu? Beti aldizkako lanak izan dira. Gehenez hiru hilabeteko lanak izan dira beti. Eta lana egin dudan bakoitzean, esperientzia bat izatearren, helburua ez da inoiz dirua lortzea izan.
  - Noiz utzi zenuen lana? Abenduan, Irlandatik etorri nintzenean, hau da, au-pair izatetik.
  - Gogoz kontrako lan uzte bat izan zen ala ez? Ez. Hiru hilabetetan egin nuen lana nahikoa izan zen, lan horretan lan egiten duen pertsonaren bizimodua ezagutzeko. Egin ditudan lan guziak oso aberasgarriak iruditu zaizkit. Eta ikasle edo langile baten ikuspuntua oso desberdina dela frogatu ahal izan dut.
  - Uste al duzu guzientzat aski lan badagoela? Ez. Baina ez dut uste benetan eskaintza gehiegi hori soberan ez egotea justifikaturik dagoenik. Izan ere, sistema horren errua baizik da, lana gutxi batzuk egiteko aukera ematea. Bizitzaren kalitateak eta bizitza honen ereduak niretzako ez datoz bat. Lan egitea pertsonaren eskubide ezezik, beharra baita.
  - Uste al duzu progreso teknologikoak langabezia ekarri duela ala beste zerk dakar? Ez zait iruditzen bakarrik progreso teknologikoa izan denik. Neurri handi batean izan daiteke baina lan alternatiboak beharrezkoak direla iruditzen zaizkit, izan ere gizarteak eskaintzen dituen zerbitzuak ez baitira nahikoak nire ustetan. Baina dirua pilatzea da gizarte honen helburua eta ez bizitza duin bat guzientzat ziurtatzeko sistema irekitzea.
  - Ba al dakizu Mendebaldeko Europan produkzioaren masa orokorra goraka doala eta ontasunen akumulazioa gero eta handiagoa dela? Konstatazio honi zer deritzozu? Guzi honek, gizarte kontsumista beste gabe zorientasunezko bizitza ez dela adierazten du. Gizarte modernoak Europako Mendebaldean, bizi-eredu bat inposatzen du. Eta eredu hori betetzeko baldintzak ez ditu betetzen. Hor daude langabetuak, aldizkako lanak... etabar. Horrek, gizabana-koengan frustrazio ugari sortzen du, bere aurrean egunero jartzen zaizkion produktuak ezin kontsumituak ondorioak baititu. Halere, sistema honen dinamikan, egon daitezkeen super produkzio-krisiak, sistema honek gaintzeko lain dela erakutsi izan du. Nahiz eta beste herrialde batzuen kalterako izan, hala nola Hirugarren munduaren

kalterako. Izan ere, gure gizartean dagoen bizi-eredu ezinhobe hau beste herrialdeen esplotakuntzan oinarriturik baitatza. Hala eta guziz, ez dut uste, jendeek beren zorionik eza gizarte honen eredia dudan jarriz egiten dutenik, aitzitik beren ezintasunera mugatzen dute.

Eta beti, ez duten hori, lortu nahian dabilta, logikoa den bezala, gizartekide senti daitezten. Eta nik ere kezka berdina daukat, ikasketak bukatzean nire ikasketei dagokien lana ez dudala lortuko pentsatzen baitut. Hala eta guziz, aukera ekonomikoa ez zait larriena iruditzen, insatisfakzio pertsonala baliagarri ezin bilakaturik dator, nire ustez, sortzen zaidan frustrazioa. Izan ere gaurko gizartean, "pluralización de mundos de vida"-ren ondorioz lana ezinbesteko baldintza da gizabanakoaren nortasuna finkatzeko. Biziraupena ez zait iruditzen arazo larriena denik.

- Zuk zeure buruaz arduratu beste ardurarik ba al duzu? Bai. Nire buruaz kezkatu beharko nintzateke bakarrik. Iruditzen zait ikasle on arazoa behintzat, baita langabetu gazteena ere, alderantzizkoa dela. Beti gurasoenganako menpekotasun ekonomikoa baitakar eta zure bizitza egiteko aukera erabat gutxiagotzen dizu. Eta noski, gurasoentzako edo menpekotasun ekonomikoa duzunarekiko ere ez zait iruditzen batere onuragarri denik.
- Norbaitek duintasunez bizitzeko lan behar duenean lanik ezin lortua dela

langabeziaren definizioa kontutan hartzen badugu: Zer sentitzen da beharrezko lana norbaiti ukatzen diotenean? Hasteko, erabat ados nago definizio honekin. Eta definizio honentzako adibide ezin hobea iruditzen zait emakumearen egoera. Emakumeak, lan eginez gizarteratu nahi baitu bere baliogarritasuna nola berarentzat hala besterentzat. Eta noski, gizarte honen eredu arabera gizarte-sektore kaltetuenetarikoa emakumearena dugu.

Bestalde, norbaiti beharrezko lana ukatzen zaionean izugarritzko frustrazioa sentitzen da. Baina iruditzen zait gizarte honen mekanismoek, norberak bere burua anka azpian jartzeraino eraman dezaketela. Ez naiz gai izan lan hori lortzeko, orduan, orokorki, lana lortu dutenak baino gutxiago naiz ondorioztatzera garamatza. Sentimentu hori da garatzen dena etengabeko konpetentzia. Eta adibidez, langabetuen presioa hain urria izatearen arrazoi nagusienetariko bat aipatuak esplikatzeko du. Norberak bere arazo bezala ikusten baitu eta ez gizartean orokorki ematen den arazo bezala. Adibidez, orain berregituraketa dela eta, lantegi horietako langileak beren eskakizunak direlarik protestaz kaleratzean, beste gizartekideek, nahiz alde nahiz aurka egon, beraien arazotzat jotzen dute. Langabezia era pertsonal batez bizitzen da orokorki, eta ez arazo kolektibo bezala. Bereizketa bat egingo nuke, kaleratze masibo bat ematen denean, jendea elkarrekintza zenbaitera bultzatzen da, baina, banaka kaleratzen denean edo inoiz



lan finko bat gabe edo gustoko lan bat lortzeko aukera gabe norbait kalean dagoenean, ez da kezkatzen besteekin protesta zerbait egiteaz, aitzitik zoriaren zain gelditzen da. Gainera, langabezian egoteak pasibotasuna garatzen du. Askok, etxean bere orduak hiltzen dituzte beren buruaz zinkurinatzen. Etxea dutenak, noski! Halere, badira prestakuntza handiago bat lortzen saiatzen direnak, etorkizunerako pertsona izan nahirik.

Ikasle on artean zerbait berezia nabaritzen da gure frustrazioa estali nahirik diogunean: Zertarako ikasi? Langabezian bukatzeko? Edota, zure balore eta printzipioen aurka doazen lanetan bukatzeko?

Halere, ikasleok uste dugu, guk bete dezakegun lana beharrezko dela gizartearentzat. Eskaintza erreala eta "beharrezkoa" ez datoz bat ikaslearen ikuspuntuturako. Guzi honek, askotan, desmotibazio bat sortzen du eta bizitzaren ikuspegi zabalago bat izatera behartzen gaitu. Hala eta guziz, ikasle gehienek euren buruetan itxaropen bat daramate. Eta gehienek, beren ikasketak aukeratzeko unean etorkizunerako ikasketak egiten saiatzen dira: ni injineru!, ni informatikari! ("El hombre del futuro"). Azkenean, lan bat lortzearen egiten da dena, hots, bizitza-maila bat ziurtatzeko. Uste dut, ikasle baten ikuspegi orokorretik hitz egiten ari naizela. Izan ere au-pair nengoenean, ikasle izan gabe au-pair zeuden beste nesken ikuspegia desberdina baitzen. Aldiz, AEKn nengoenean beste ikuspegi

bat zen. Beraz, esan dezakegu, nahiz eta langabetuak izan ditzakeen kezka antzekoak izan, oso desberdina dela kolektibo bakoitzaren arabera. Beren buruetan, azken finean, ez dut uste langabetu izatearekin identifikatu nahi dutenik, potentzian izan beharko luketen horrekin baizik.

- Bizitzarekiko, gizartearekiko dugun ikuspegia aldatzen al da? Etengabeko borroka bat iruditzen zait, norberaren barnean gizarteak bultzatzen duen ereduaren eta lorpen horren ezintasunaren artean. Ni langabetu potentzian sentitzen naiz, eta gizartearekiko irudia erabat ezkorra dut. Baina ez zait iruditzen jende gehienak horrela pentsatzen duenik. Langabetuari, orokorki, ez zaio gizartea ezkor, bere egoera pertsonala baizik. Izan ere, nire ustez, arazo handiagoa da bizirik irauteko, langabezia oztoporik handiena dela sinestea. Are, "behin" bizitzeko aukera izan, eta gizarteak duintasuneko egoera ukatzea da arazorik larriena. Hau da, askotan lana ez da gustoz egiten, baina onartzen duzu lan horretatik lortzen duzun diruarekin zoriontasuna emango dizun produktua lortzea espero duzulako. Baina, hainbat ordu nola sar genezake benetan gustora sentitze bakarragatik? Utopikoa badirudi ere, hau da nire kezkarik handiena.
- Duzun egoeragatik zer litzateke lehen balore? Berdina izaten jarraitzen al duzu ala eta zure balore-hierarkia irauli da? Noski!. Lana lortzea da karkoa. Berriro ere

bereizketa bat egingo nuke: ekonomikoki bizitzan irautea helburu duenaren eta benetan bere izatea garatu nahi duenaren artekoa, alegia. Eta hau, nire ustez, gazteen artean garbiago ageri da. Batez ere, gurasoen babesa izan duten horietaz ari naiz. Lehen lana nolabait egitea ezinbestekoa jotzen zen, orain aldiz, bizitzak eskaintzen dituen aukerak eta ikuspegiak desberdinak direla konturatzen gara. Berrogeitamar urte eta familia duen guraso batentzat lana lortzea da bere premirik handiena. Lana ez izateak dakarzkion ondorioak oso desberdinak baitira.

- Besteekin harremantzea garrantzizko gertatzen al zaizu ala zure baitan ixten zara? Guziz beharrezkoa deritzot besteekin harremanetan jartzeari. Langabetu izatearen konplexu hori, nazkagarri baiteritzot. Eta konplexu horrek askotan zugarri ixtera behartzen zaitu. Halere, langabetu izateak, askotan, zure harremanak erabat murrizten ditu, aukera ekonomikoa urriagoa baituzu.
- Langabetua gizartean marjinatua da ala eta beste zer da? Bai, erabat! Honen adierazgarri handienetarikoa bat “bizitzaren iraupenerako” ematen dituzten laguntzak dira. Lan-aukerak sortu ordez hogeita mila pezeta ematen digute. Jatea omen da ezinbestekoa gizakiarrentzat, eta zure duintasuna bost axola zaie!
- Prestakuntzarik egiten al duzu lan berri bat aurkitzeko asmoarekin?

Noski! Guzian buruan dago. Ingalaterrara joan naiz ingelesa ikastera. Langabetuentzat dauden programa bat bete, edo curriculum vitae polit bat betetzeko ahal ditzakezun guziak osatzen dituzu. Baina, nire baitan benetan asegarri izango zaidan lana lortzea da kezka nagusia.

- Erakundeek, langabetuei eskaintzen dieten asistentziari egoki al deritzozu? Ez! Lotsagarria!
- Borondatezko elkarteek eskaintzen duten laguntzari positibo al deritzozu? Sin comentario! Honetan datza gizarte honen betiko dinamika. Karitatea, duintasunaren orde! Ez dugu karitatea eskatzen, duintasuna baizik! Eta noski, kultur onadea eskertu behar dugu. Uste dut, esan dudana, inoren izenik aipatu ez badut ere, garbi gelditu dela nori buruz ari naizen hitz egiten.

Elkarrizketagileak: Josune Iguinitz, Ainhitze Pagola eta Arantza Urkaregi.

(Elkarrizketatuaren soslaia laburbilduz ondoko hau ondorioztatzen dugu: bizitzan okupaturik egonik ere, gogoz langabetua dugu. Behin bizi behar eta orduan duintasunezko aukeran ezin bizi litzatekeenaren drama ageri digu. Gazte gehienek, eta zenbait aldiz luzaz, bizitzen duten lehen krisiaren motiboa da. Gaur oraindik oso arrunta da haur bati galdetzea, larria izango zarelarik zer izan nahi duzu? Lehen, garai batez, bazirudien norberaren baitan zegoela izan nahi zen hura izatea. Gaur egun,

orokorki harturik, amets inuzente bat besterik ez da aukera horietan sines-  
tea. Zerbaiti buruz borrokatuko zara,  
baina, jakinean amaierak aldaerak  
eskain ditzakeela. Bi printzipio garran-  
titziko bereiztu dizkigu: Bata, ez da  
gauza bera langabezira masiboki ala  
pribatuki iristea. Bestea, gauza bat da  
lan bat beste aukerarik ez duzula  
jakinean egitea, eta beste bat aukera  
batzuek dituzula sinestuz, pasadizoko  
zaudela han jakinean egitea.)

#### 7.- Gidoia:

Zazpigarren eredu edo irudi-  
-emailea J.I.A.L. siglaz izendatuko  
dugu. Donostian sortua duela hogeita-  
zazpi urte. Oinarrizko Heziketa Oro-  
korra jaso zuen. Gurasoak, nola aita  
hala ama, Oriokoak ditu. Ikasketa  
orokorrak dituzte.

- Noizbait lan egin al duzu? Bai. Bi udara hondartzako garbitzaile bezala aritua naiz.
- Lana noiz utzi zenuen? 1988ko irailean.
- Gogoz kontrako lan uztea ala zuk hala nahita izan zen? Kontratua bukatu zelako utzi nuen. Ahaleginak egin nituen 1989ko udaran berriz lan berberan iharduteko baina ez nuen lortu.
- Uste al duzu denentzat aski lan badagoela? Beno, Orion lana beti dago! Itsasoan nahi baduzu beti daukazu, baina, nire sorbalda okerra da eta ez naiz gai lan horretarako. Hau da ezagutzen dudan posibilitate bakarra baina niretzat ez du balio.
- Uste al duzu progreso teknologikoak langabezia ekarri duela ala beste zerk ekarri du? Baietz pentsatzen dut! Lana makinek egiten dute orain eta nola ez, beraiengatik lanpostu asko galdu da. Baita ere kontutan izan behar da krisi latza dagoela gaur egun eta egia esan ez dut uste medio handirik jartzen dutenik gobernanteek egoera hau aldatzeko. Nire ustez bukaera gabeko zulo beltz batean sartuta gaude eta oso zaila izango da oraingoz bertatik irtetzea.
- Ba al dakizu Mendebaldeko European produkzioko tasa orokorra igotzen ari dela eta ontasunen pilaketa geroz eta haundiagoa dela? Konstatazio honi zer deritzozu? Gauza argi dago! Beti betikoek irabazten dute dirua mundu honetan. Aberatsak egunero aberatsagoak eta noski ni bezalakoak egunak pasa eta egunak etorri, eta are okerrago eta pobregago.
- Zure buruaz arduratu behar besterik ba al duzu? Ez, eta hori da tristea! Nire adinarekin ezkontzeko gogoia eduki beharko nuke, baina dirurik gabe, nola atera sendi bat aurrera?
- Norbaitek duintasunez bizitzeko lana behar duenean lanik ezin lortua dela langabeziaren definizioa kontutan hartzen badugu: zer sentitzen da beharrezko lana norbaiti ukatzen diotenean? Malaletxe handia! Uste dut denok izan beharko genukeela lanpostu bat izateko eskubidea.
- Bizitzarekiko, gizartearekiko dugun ikuspegia aldatzen al da? Bai, gogo-

- rik eta ilusiorik gabe bizi naiz. Ez dut etorkizuna oso polita ikusten...
- Duzun egoeragatik zer litzateke lehen balorea? Berdina izaten segitzen al duzu ala eta zure balore-hierarkia irauli da? Sendiak nire egoera onartzea da beharrezkoa. Ni nagoen egoeran inork ez badizu laguntzen bizitzeko gogoazkar galtzen duzu.
  - Besteekin harremantzea garrantzizko gertatzen al da? Aurreko galderan esan dudana bezala, beharrezkoa iruditzen zait jendearekin harremanak izatea, arazoak lagunei azaldu ahal izatea, zu bezala dagoen jendea ezagutzea... Honela behintzat bizirik zaudela somatzen duzu, eta ez zaude egun guzian "burua jaten". Harremantzeari ihes egiten badiozu, eta bakarrik sentitzen bazara, galtuta zaude.
  - Langabetua gizartean marjinatua da ala eta beste zer da? Beno, lehen bazitekeen hala izatea, baina gaur hainbat dira ni bezala daudenak... Ez, ez dut uste asko diskriminatzen gaituztenik!
  - Prestakuntzarik egiten al duzu, lan berri bat aurkitzeko asmoarekin? Ibili nintzen Eusko Jaurlaritzako lantegi batzuetan, baina ez dut uste asko ikasten denik. Behintzat ez nintzen hainbat denbora kalean egoten. Iaz berriro ikasten hasi nintzen, baina nire adinarekin oso zailak egiten zitzaizkidan gaiak, eta hiru hilabete pasa ondoren utzi egin nituen.
  - Lan bila, Euskal Herritik at joatea noizbait pentsatu al duzu? Ez! Lehen hori posible izango zen (Argentinara, Alemaniara), baina orain ez da berdina. Frantziako lurraldeetara joana naiz mahatsa biltzera, baina epe laburretarako. Ez naiz gai etxetik kanpo joateko. Beti geratzen da itxaropen apur bat eta horren zain nago!
  - Borondatezko elkarteek eskaintzen duten laguntzari positibo al deritzozu? Nire ustez, erakundeek nahi balute, lanpostu asko sortuko lukete, baina ez dakit zergatik, ez dute egiten.
- Elkarrizketagileak: Jaione Juaristi, Iranzu Gabilondo eta Ramon Sarasua.
- (Elkarrizketatuaren soslaia laburbilduz ondoko hau azpimarra dezakegu: langabezian dagoen gazte arruntaren batezbesteko irudia isladatzen du. Bere herriko loturak sendoegiak ditu bertatik at ateratzeko, baina, erroturik dagoenez (sendiaren konprensioa du lehen balore) ziurtasun-sentimentua ageri du etorkizunarekiko (itxaropen apur bat). Bestalde, gure gizarteetako gobernariak badakite arrisku handia dela langabeziaren poltsa besterik gabe handitzen uztea. Leher daiteke. Hori dela eta, asistentzia bat eraiki da langabezia iraunkorarentzat. Ezer gutxirekin hor lotzen direnak erakundeekiko zordun-sentimenduan jartzen dituzte. Aldi berean, gazteago direnei buruz okupazio-sentsazioa emateko "lan ordekoak" ireki dituzte: lantegiak, etabar. Baina, ondotik lan errealerako loturarik ez badute "itxaropenak" zapuz

ditzakete. Elkarrizketatuak nabarmen utzi digu.

Gidoiak agertzen segi genezake, zeren ereduaren aberastasuna ez baitago agorturik.

Esaterako, anitz bada langabetuen artean “entxufatuen” presentzia detektaturik salatzen dutenak. Nepotismoen mundua ez da desagertu inoiz. Gaur egun bizi dugun egoera bezalakoetan berriz bereziki nabarmentzen ditugu joera horiek testuinguruan duten pisu eta esanahiagatik. Bada zahartzaro aurreratua eman dioten langilerik arrazpozik ukan duen suerteagatik. Honentzat langabezia bedeinkazio bat izan da. Bada langabezia ezkontzaz lorturiko kidearen egoera pribilegiatuaz konpondu duenik eta arro agertzen denik. Bada lagun urkoen aldeko borrokan itzuliaz bere lan-egoera sakrifikatu duenik. Eta gaur egun exilio bat langabezia bizitzen arituagatik egindakoaz damurik ez duela aitortzen duenik. Abar luze bat eman genezake. Baina agertuarekin uzten dugu saio hau.

---

### **Gogoeta proiektiboak**

---

Langabeziazko egiturazko egoeraren aitzinean gaude. Gizaki-emaztekien fakultate batzuen erabilerak jakintza eman digu. Eta bere bidez gure eginbehar manualak geroz eta errazago bilakatuz joan dira. Hastapenean lorpen batera ailegatzeko behar genituen eskulanak eta orduak, gaur egun jakintzak ekarri dizkigun aurrerapen teknikoak direla eta minimoetara jaitsi ditugu. Honek esan nahi du aurrerapen teknikoek esker

eskulanak eta orduak aurrezten ditugula emaitza berdinetara ailegatzeko. Eta konstatazio hau ez da egoera tamalarena, zori-koarena baizik! Gizaki-emaztekiari betidanik bere bilakaeran lana beharrezko agertu zaionez, lanaren kultura bat egin dugu. Baina, lana bezain garrantzizkoa da aisia. Aisiari esker gizaki-emaztekiak bere gorputz eta gogo bizi berritzen ditu. Are, lanaren kultura bilakatu dugunean ere, ahanzi ezinezkoa da gizaki-emaztekiaren xedea aisiaren espazioa eta denbora gero eta handiagoa lortzeko izan dela.

Europako mendebaldeko historia adibidetzat hartzen badugu, garbi dago gizaki-emaztekiak eskaini beharreko eskulanak eta orduak gutiten joan direla. Hori bai, aurrerapen batek horretan urrats substantiboa suposatu izan duen bakoitzean krisialdiak bizi izanez. Ordu arteko lana-aisi binomioan aldaketa eman izan delarik, beti ez baito segitu gizaki-emazteki guzien artean abantailaren berehalako partaketak. Gizartean pribilegiozko tokia duten batzuek beti joera baitute guzi horretaz apropiatzeko. Batzuen partetik ematen den erretentzio horrek gainera krisia egin ohi du azpikoaren desabantailan berrorekarera heldu aitzinetik. Lurlangintzak aspaldidanik bizi dugu aurrerapen teknikoek ekarritako abantailen desegituratze-prozesua bere krisi eta berrorekararekin. Gaur oraino azken aurrerapen informatiko-teknologikoekin berriturik dagoena, krisiari jarraipena emanez gainerako produkzio desegituratzearen dependentzian sartu dena. Aldi berean aurrerapen informatiko eta elektronikoen industria eta zerbitzuetara

ekarririko abantailek desegituratze-prozesuan amildu dizkigute krisia eraginez eta berroreka eskatuz. Hor gaude. Aisiaren espazio eta denbora haunditu zaizkigunean gizartean pribilejiozko tokia dutenen apropiatzea dela eta azpikoen itolarria sortu digute. Ez gaude termino absolututan hitz eginez krisian, naharotasunak eragin duen desorekan baizik.

Gizarte industrialia inauguratu zenez geroztik ez da lehen aldia horrelako egoera bat. Hemeretzigarren mendez gero antzeko lau edo bost ezagutuak ditugu. Aterabidea, naharotasuna banatetik igaro ohi da. Mende honen 70.eko hamarkadaz gero informatika eta elektronikaren aurrerapenekin eskulanak eta orduak irabazi dira. Aisiaren espazio eta denbora handitzea lortu dugu. Hori lan-munduan berrinbertitu arte krisian irauko dugu. Zeren gure kultura lana baitugu duintasunezko bizitza egiteko beharrezko ditugunak banakatzeko kriterio nagusi. Baina, aisa nola lanean berrinbertitu? Duintasun-bizitzarako beharrezko duguna lanordu gutxiagoren truke emanez. Lehen ere, industri munduaren hastapenetan, egunero hamalau orduko lanaldia zenetik zazpikoraino etorriak gara. Une

honetan, azken urteetan eman den abantailarekin, eguneko lau orduko lanaldietara igaro behar. Gaur zazpi orduko lanaldiak eginaz irabazten duguna lau ordukoekin mantentuz, alegia. Proposatzen dudanak inozoak eta ezjakinak eskandalizatuko baditu ere ez da desarrazoikeria bat. Gaurko gizarteak duen krisiaren diagnostikoak ageri dizkigun naharotasun-arazoak bideratzea baizik. Hau da langile-munduan dauden erakundeek eta sindikatuak konprenitu behar dutena, gaurko krisia lehenbailehen berroreka itzultzeko gelditzen den bide bakarra lortu berri dugun aisa handituaren aukera gizaki-emazteki guzientzat gauzaraztetik igarotzen dela. Hori gaurko eskulanak eta orduak banatuz bezain beste okupazio batzuk lan-kategoriara jasoz lortuz joango gara.

Bigarren eginkizun hau ere ez da txikiagoa. Hainbat aktibitatek lan-kategoria formalizatua lortu behar duen gizarteetan baikaude. Bistan da guzi hau lortu dugun naharotasun-gizartearen eredu bizi diren herri guzietan aldi berean emanez lortu daitekeela trauma gutxienarekin, baina, hori koordinatzea arazo korapilotsu gerta daiteke. Berriro ere gure rrazionalitatea frogan ezarria dago.

---

**Oharrak:**

---

- 1 *Biblia*, Hasiera, 3 kap. 17, 18 eta 19 berts. Euskarazko itzultzailea Marcel Etchehandy, Elkar, Baiona, 1979
- 2 Aristoteles, *La política*, Arg. Editora Nacional, Madril, 51-53 orr. 1981.
- 3 *Ibid.*, 56 orr.
- 4 Ernest Mandel, *Introducción a la Teoría económica marxista*, Arg. Era, Mexiko, 1974, 11 orr.
- 5 Tomas Moro, *Utopia*, Euskarazko itzultzailea Piarres Charritton, Arg. Klasikoak S.A., Bilbo, 1992, 55-57 orr.
- 6 *Ibid.*, 107-109 orr.
- 7 Immanuel Wallestein, *Le capitalisme historique*, Arg. De la Découverte, Paris, 1985, 43 orr.
- 8 Ikus, *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*, Arg. Península, Bartzelona, 1969.

---

**Bibliografia:**

---

- ADRET, *Travailleur deux heures par jour*, Arg. du Seuil, Paris, 1977.
- BLANCH, J. M. *Del viejo al nuevo paro*, Arg. PPU, Bartzelona, 1990.
- GORZ, A., *Adiós al proletariado*, Itzultzailea. M.Gil, Arg. El Viejo Topo, Bartzelona, 1981.
- MAURICE HALBWACHS, *Esquisse d'une psychologie des classes sociales*, Librairie Maurice Rivière et Cie, Paris, 1955.
- JAHODA, M., *Empleo y desempleo: un análisis socio-psicológico*, Itzultzailea; J.L.Alvaro eta M.Corniero, Arg. Morata, Madril, 1987.
- PASTRÉ O., *L'informatisation et l'emploi*, Arg. de la Découverte-Maspero, Paris, 1983.
- RACIONERO, L., *Del paro al ocio*, Arg. Anagrama, Bartzelona, 1983.
- TORREGROSA, J.R., et al. *Juventud, Trabajo y desempleo: un análisis psicosociológico*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril, 1989.